

ANOETA / Liburuen Merkatu txikiaren arrakasta

Aste honetan Anoetako liburutegiko liburu erabili eta bikoiztuak kalera atera dituzte herritarrek eskuratu ahal izateko. Joan den igandean, urriak 24, ospatu zen Liburuen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko modua izan da eta martxan egon den lau egun hauetan ekimena arrakastatsua izan da.

"Aurreko urteetan doan ematen genituen liburuak baina asko hurrek hartu eta ez ziren inora iristen. Aurten liburuei irteera duin bat eman nahi izan diegu", azaldu du Arantxa Vega liburutegiko arduradunak.

Liburuak Udaletxe aurreko mahai batean daude salgai prezio sinbolikoetan, 50 zentimo eta hiru euro bitartean. Bertan Anoetako liburutegiko liburuak aurki daitezke, erabiliak izandakoak, baita bikoiztuak egoteagatik erabili gabe daudenak, "beste liburutegi batzuetan ere badituztelako. Anoetako liburutegia txikia da eta irteera eman behar zaie liburuei", dio. Egunero ale berriak ateratzen dituzte antolatzaileek eskaintza berritzeko.

Liburuen merkatu txikia gaur ostirala ere irekita egongo da. Ordutegia arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara izango da.